

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko, gastu batzuk izango ditugu. Kostuak bi zatitan banatu ditugu, kostu finkoak eta kostu aldakorak.

- **Kostu finkoak**

Koste finkoak, konstanteak diren kostuak dira, hau da, ez direnak aldatzen.

- Publizitatea
- Soldata
- Materialak (hatz markaren detektorea, NAN-an hatz-markak erregistratzeko erabiltzen den sistema)
- Maquinen aldaketa (lektoreak jarriko ditugun makinak)
- Ordenagailuak



- **Kostu aldakorak**

Kostu aldakorak, produkzioa eta kantitatearen arabera aldatzen direnak dira.

- Gehitu sensore berri hau makina gehiagori
- Mantentze-lana (Makinaren bat konpondu, behar izanez gero)

Gure hasierako inbertsioa 98.000 eurokoa izango da gutxi gora behera, baina diru hori Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen du. Diru hori, hatz markaren irakurle guztien prezioa (Irakurle bakoitzak, 50 euro ingurokoa da) eta eskulana da:



Metroan, 30.000€ inbertitu behar dira hatz-markako sentsoreak erosteko, bai makinentzat, bai kargatzeko aukera ematen diguten makinentzat; eta kalkulatu dugu 10.000 € inbertitu beharko direla guztira eskulanean. Metro-irteera bakoitzean 3 edo 4 irakurgailu jarriko dira (100 irteera inguru daude). Irteerak igogailua badu, 4 jarriko dira, baina

irteerak igogailurik ez badu, 3 baino ez dira jarriko. Gainera, barik kargatzeko makinetan edo, kasu honetan, gure oinatzetan ere, aldatu egin beharko dira (200 makina daude)

Bizkaibusen, aldiz, 31.400 euro inbertitu behar dira. Izan ere, autobus bakoitzeko bi hatz-marka digitalen irakurle jarriko ditugu (314 bus daude). Horretaz gainera, eskulanerako 12.000 euro jarriko dira.



Azkenik, Bilbobusen, 14.100 euro inbertitu behar dira. Bizkaibusen bezala, autobus bakoitzeko bi hatz-marka digitalen irakurle jarriko ditugu (141 bus daude). Horri, eskulana gehituko diogu, 10.000 euro.

Horri, gehitu behar zaio erregistratzera joateko bulegoetan dauden irakurleak. 3 bulego daudenez, bulego bakoitzean 3 irakurle jarriko ditugu. Orduan, 450 euro inbertitu behar dira.

Horretaz gainera, publizitatea egiteko 5000 euro inguru inbertitu beharko ditugu, iragarkiak eta aldizkarietan gure zerbitzua agertzeko.